

Aldaketak eskatzeko kasu berezietarako irizpideak

Arau orokor gisa, Practicum enborreko irakasgai bat da eta, beraz, errespetatu beharreko egutegi, ordutegi eta ordu kopuru bat dauzka zehaztuta.

Ikasle batek ezin badu Practicum-a ezarrita dagoen moduan bete, bere egoera “Kasu Berezi” bat izan daiteke, frogatuko balu:

1. Ikasketak eta lana batera egin behar dituela¹.
2. Erditzeko, adopzioko edo harrerako kasuetan eta hiru urtetik beherako seme-alaben ardura duela².
3. Mendeko senide baten zaintzaile dela³.
4. Genero indarkeriaren biktima dela⁴.
5. Goi mailako kirolari, teknikari eta epaile gisa edo errendimendu handiko kirolari gisa egiaztatutako UPV/EHU-koa dela⁵.
6. Mugikortasun programetan parte hartzen duela.
7. Garapenerako Lankidetzeta programetan parte hartzen duela.
8. Beste egoera batzuetan dauden ikasleak:
 - a. a. Gaixotasunak, istripuak
 - b. b. Arazo administratiboak
 - c. c. Aldez aurretik ikusi ezin daitekeena
9. Irakasgaia baliozkotzea, osorik zein egonaldia.

Egoera hauen aurrean ikasleak egin ditzakeen eskaera motak:

- Egutegi aldaketa,
- Ordutegi aldaketa edo
- Ikastegi aldaketa.

Eskabidea Hezkuntza eta Kirol Fakultateak zehaztutako epean eta moduan egin behar da, bere berezitasuna ziurtatuko duen dokumentazio guztia gehituz, baita soluzio bideak eskainiz ere.

Ez da onartuko akordio partikularrik ikasleen eta eskolako zein unibertsitateko tutoreen artean. Fakultateko Practicum Batzordeak ebaztitakoa izango da soilik baliagarria.

¹ https://www.ehu.es/documents/3026289/3106907/UPVEHUko_Ikasleen_Arautegia.pdf, arautegi honen 10. Artikuluaren arabera.

² UPV/EHUko Ikasleen Arautegiaren 8.artikuluaren arabera.

³ UPV/EHUko Ikasleen Arautegiaren 9.artikuluaren arabera.

⁴ UPV/EHUko Ikasleen Arautegiaren 7.artikuluaren arabera.

⁵ UPV/EHUko Ikasleen Arautegiaren 6.artikuluaren arabera.

Ikasleak jarraitu beharreko prozedura honako hau izango da:

1. Ikasleak aurreikusten diren kasu berezien aukerak eta eskaera motak aztertuko ditu eta bere egoerari egokitzen zaiona identifikatuko du.
2. Ikasleak web orriko Practicum atalean dagoen inprimakia beteko du.
3. Ikasleak eskaera berezia arrazoitzen duten agiriak bilduko ditu.
4. Ikasleak eskaera egingo du praktiketako kronograman jarritako epean, eskaera inprimakia beteta eta agiriez lagunduta.
5. Practicum Batzordeak eskaera aztertu eta onartzeko ala ez onartzeko erabakia hartuko du.
6. Ebazpena web orriko Practicum atalean argitaratuko da.
7. Practicum Batzordearen ebazpena aldekoa bada, praktiketako zentroari komunikatuko zaio. Zentroak egoera edo kasu bereziaren baldintzak onartzen baditu, ikasleari eta bere bi tutoreei (unibertsitatekoa eta eskolakoa) komunikatuko zaie. Zentroak baldintza bereziak ez baditu onartzen, beste zentro bat bilatu beharko da.
8. Practicum Batzordearen ebazpena kontrakoa bada, ikasleak Practicum arrunta egin beharko du eta ez du inolako eskubiderik izango praktikaldiko baldintza orokorrak ez betetzeko.
9. Egutegi akademikoan aldaketa eragiten duten eta beste irakasgai batzuei eragiten dieten kasu berezietako eskaera guztietan, erantzukizun osoa ikaslearena izango da.